

Bakaikun eta Olatzagutian festa bete-betean



Sakanerria >> 8

Sakatxartel Asteburua. Erosketak egiterakoan Belexeguaixe txartela erakutsi eta sari eder pare baten zozketan sartuko zara



Sakanerria >> 9

Garalurrek 61 ekintzaile lagundu zituen 2014an

Diru-laguntzekin, betekizun fiskalekin, lan betekizunekin, sozietate motekin edota ideia aztertzen laguntzen dute.

Arbizuko Utzugane, Sakanako Garapen Gunean jaso dezake aholkularitza ekintzaileak astegun goizetan.

>> 3

Arakilgo eguna bihar Itxasperrin eta Urritzolan

Eguerdian ermitan elkartuko dira eta festak Urritzolan izanen du segida >> 8

Altsasun festa parekideen aldeko kanpaina

>> 9

Bihar eta etzi erabakiko da Olaztiko pilota txapelketa

>> 11

Ekomartxak Sakana zeharkatu zuen

>> 6



Asteartean historia ikastarora ikasle ugari joan ziren.

Uda-Ikastaroen agur jendetsua

>> 5



Ontzigintzara bideratutako basoen berri izateko >> 7



June Kintana junior mailako mundialean lehiatzen >> 11

ZURE NEGOZIOA GIDAN IRAGARTZEKO DEITU

948 56 21 07
618 88 26 27



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA
%20
ra
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Aritz
ZORIONAK potxolo!
11 urte dagoeneko!!
Oso ongi pasa dezazula.
Muxu handi handi bat
etxekeon partez.



Jon, Adur, Joanes eta Aritz
ZORIONAK laukote!! Larunbatean, hilak 26,
arratsaldeko 17:30etik 18:00ora, elkar ikusiko dugu
igerilekuan. Ondo pasa koadrila!!



Iñigo eta Maria
ZORIONAK
eta bikain pasa zuen
bidaian!!



Maddi Gastaminza Betelu
Igandean... tatxan tatxan... 7 urte! Zenbat ari zaren
handitzen! Ongi-ongi pasa ezazu eguna.
ZORIONAK aita, ama, Oihan, familia guztiaren
eta Pin y Pon guztien partez. Muxu pila!



Andoni
ZORIONAK Andoni!!
Ongi pasa.



Ibai
ZORIONAK Ibai, poli-
tte!! Muxu handi bet
Oihan, aita eta ama-
txon partez. Izugarri
maite zaitugu.

**Bazkideek
deskontua**

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

garilak

25-31

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

James Bruce & Bella Black. Garilaren 25ean, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Gaztetxean.

Los del Rayo. Garilaren 25ean, ostiralean, 23:00etan Urdiaingo igerilekuan.

Alexey Artemyev akordeoi ikasleak. Garilaren 26an, larunbatean, 17:00etan Altsasuko Otadiko Kristo Deuna aterpean.

Enrike Zelaia eta Amaia San Miguel. Garilaren 29an, asteartean, 11:30ean Altsasuko Josefina Arregi klinikan.

Zinema

Los juegos del hambre: en llamas. Garilaren 30ean, asteazkenean, 22:00etan Irurtzungo Foru plazan.

Mendi irteerak

Ezkaurre haitza. Garilaren 27an, domekan, 8:00etan Altsasuko Mendigoizaleak elkartearen egoitzatik.

Tailerrak

Nekazaritza Birsortzailea. Garilaren 26an, larunbatean, 9:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara Etxarriko



Zapi gorria lepoan. Horrela hasi zituzten festak atzo pasa den urtean jaiotako 19 olaztiarrak. Udaleko ordezkariak kultur etxean banatu zizkieten zapiak txikiei. Handik aterata musika eta erraldoi eta buruhandien konpartsa zituzten zain.

Udaletxean kedada. Ondoren Mandoibai dermioko herri baratzean. **Sakantzen Sarea. Aurretik izena eman.**

Sakanako Historia. Garilaren 27an, igandean, 10:00etatik 13:30era Uharte Arakilgo Plazan. **Sakantzen Sarea. Aurretik izena eman.**

Bestelakoak

Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologi aztarnategira. Garilaren 26an, larunbatean, 11:00etan Uharte Arakilgo Zamartzen.

Haurren eguna. Garilaren 26an, larunbatean, 11:30etik aurrera

Urdiaingo igerilekuan.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 25ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken**

ostiraleko elkarretaratzea.

Palestina aurrera! Garilaren 26an, larunbatean, 19:30ean Altsasuko udaletxe aurrean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 27an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA: albisteak, kirolak, Ekomartxa...

Esataria: *Alfredo*

SAKANA

Cederna-Garalurrek pasa den urtean 61 ekintzaile lagundu zituen

Nafarroako Gobernuak astelehenean jakinarazi zuen Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, Cederna-Garalurrek 155.650 euroko diru-laguntza eman ziola. Nafarroako Mendialdean ekintzailetasuna bulkatzerako egiteko eta ekintzaileei laguntza osatua ematera bideratuko du Garalurrek diru hori.

Cederna-Garalurrek pasa den urtean Sakanako 61 ekintzaile (33 emakumezko eta 28 gizonezko) eman zien laguntza (diru-laguntzez, betekizun fiskalez, lan betekizunez, sozietate motez edota ideia aztertzen). Gainera, lau ekintzailek proposatutako ekimenen bideragarritasun azterketak ere egin zituzten. Hiru emakumezkoek eskatu zituzten eta bakarria gizonezkoak.

Ekintzailetasuna sustatzen

Cederna-Garalurrek 2013an sakandarren artean ekintzaile izateko nahia bultzatzeko eta indartzeko zenbait jardura egin zituen.



Pasa den urtean Cederna-Garalurrek antolatutako Ekintzaileen Kedadako une bat.

Mank-ek antolatutako enplegu tailerreko ikasleei 12 orduko prestakuntza saioa eman zien Garalurrek otsailaren 8an eta 9an, **auto-enplegua, langabeziatik ateratzeko bidea**. Garagarriaren 19an 80 pertsona elkartu zituen Altsasuko Iortia kultur gunean **antolatutako Ekintzaileen Kedad**an.

Lanbide Heziketako 40 ikasleri ere azaldu zieten ekintzailetzaren abantailak 2 orduko **tailer batean**, abenduaren 12an izan zen. Tokiko hedabideen bidez ekintzaileen **esperientzien berri zabaldu** zuten Garalurrek.

Aldi berean, Cederna-Garalurrek pasa den urtean Sakananekin

tzaitza bultzatu zuten proiektuak ere lagundu zituen. Batetik, Urko Mauduitek sustatuta aurten martxan jarri den **3D animatika enplegu tailerra**. Bestetik, Nafarroako Enplegu Tailerrak eta Mondragon Unibertsitateak sustatutako **Eginez ikasi tailerrean** laguntza eman zuten elkarrekin.

Ekintzaileen kontsultak 2013an

Udalerrria	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Altsasu	8	8
Arakil	1	1
Arbizu	6	2
Arruazu	0	1
Bakaiku	0	0
Ergoiena	4	1
Etxarri Aranatz	3	5
Irañeta	0	0
Iturmendi	1	0
Irurtzun	1	1
Lakuntza	2	2
Olatzagutia	4	3
Uhartea Arakil	1	1
Urdaín	2	3
Ziordia	0	0
Guztira	33	28

Cederna-Garalurrek Sakanan

Bere egoitza Utzaganen, Sakanako Garapen Gunean du, Arbizuko Utzubar industrialdean. Susana Mendinueta eta Oskia Lazkozek, astelehenean ostiralera, 9:00etik 14:00etara, ekintzaileei honako laguntza eskaintzen diete: diru-laguntzei buruzko informazioa eman; jardura bat martxan jartzeak berekin dituen betekizunei buruzko informazioa eman; proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko laguntza eman eta elkarrekin proiektuak buruzko aholkularitza eta informazioa ematen dute.



Aralarko aingerua laguntxo koadrila handitzen ari da

Aralarko Deun Mikel Goiainguruaren Kofradiaren gonbiteari segituz, igandean hainbat guraso eta aiton-amona euren seme-alaba eta ilobekin agertu zen santutegian. 70 bat ume eta haur elkar-tu ziren. Meza nagusian Aralar-

ko aingeruaren aurrean aurkeztu zituzten eta akaberan haren bedeinkapena jaso zuten, goiainguruaren adiskide bihurtuz.

40 baten gurasoek alde aurretik izena emana zuten eta haiek izan ziren igandean bertan kofra-

deen eskutik pergaminoa jaso zutenak. Gainontzekoek egun batzuk itxaron beharko dute. Idatzian aingeruaren eta umearen arteko adiskidetasunaren berri ematen da eta aingeruak pertsona bizi gutxian zaintzeko eskatzen da.



Txikiak ere aingeruaren irudia gurtu zuten. NEREA MAZKIARAN.

Zatoz eta ezagutu
Dibertsioaren lurraldea

Tri Sarri LAND

Ongi pasa bestetan!

Familia osarentzako jarduerak: Canopy-a, 1.000 m²ko nabea haurrentzako jolasekin, mendiko ibilbideak, Zaldi ibilaldiak

Pendulu jauzia, BTT pistak, Hegaldiak, helikopteroan, Tibetar zubia, Ostatu eskaintza ikusgarria

Informazio gehiago:
www.trisarriland.eu
T. +34 948 928 922
e-maila: info@trisarriland.es
Tri Sarri Land, Igantzi, NAFARROA



Raf Atxuri

Erregeren zerbitzua (kita dezagun)

“Jaun baruak” abestia ozen eta senetz, asmoz eta jakitez kantatzeko tenorea dugu aurtengo uda. Zuberoako kantore zahar honek badu antimilitarismoa eta erromantizismoa zer bait, baina azken ahapaldiko dei sutuak gaurkotasan izugarria du Piriñoz honatago: “Jauna maite banaüzü, erraiten düüzün bezala, kita ezazü erregeren zerbitzia, eta maite herria ükhen dezadan plazera”.

Ezuste lausotu batean iritsi zitzaigun Juan Karlosen abdika-

tzea eta uste sakon batean dinastiak irauteari bidegabe iritzien hainbatek, halako moldez non plaza, karrika nahiz platonetan debatea sargoritu zen.

Feliperen arribatzea normaltasun demokratikoak (sic) eta legearen betetzeak behartu zuten laster bizian, Juan Karlos foruztatu zuten are bizkorrago eta dohain guztiez horniturik omen dagoenak borboitarren hurrengo atala osatzeari ekin zion.

Anartean bilbotar sozialista

hautagai batek xelebrea bota zuen: “PSOEk modernotasun-tal-ka latza behar du”. Hura esan eta monarkiaren irauteari alde bozkatu. Harrapa ezank, hi!

Ustezko igarobide demokratiko hartako ikur sakrosantua berriz astindu zuten konstituzioaren defendatzaile sutuak eta baita azalez errepublikazale agertzen diren anitzek Feliperen alde egin zuten, toreatzaileei bezala aukera bat eskainiz.

Baina badakigu aukera hori emaitza ona edo ezinago ustela

izanik ere belaunaldietan luza daitekeela eta beste hamaika bertute aurkituko dizkiotela monarkia borboitarri.

1931koan bezala espero dezagun historiak aukera bat eskain dezala (hara Irakeko Kurdistan) eta ea lehen errepublika bi eta hirugarren bat abiatzen diren.

Bitartean errepublikazale bizi gaitezen, eta Zuberoako aire zaharra astin dezagun nonahi: *kita ezazü, kita ezazü erregeren zerbitzia*.

Uda zoriontsu pasa.

astekoa

barrutik kanpora

Baliabideak eta helburuak

Idatzi hau aurtengo denboraldiaren azkena da eta balorazio bat egiteko erabili nahiko genuke. Aurreko asteko Guaixen agertu bezala, langabezia jaitzi egin da gure bailaran, konkretuki 2009ko abendu portzentajea iraino. 1.545 pertsona daude Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda. Badirudi urte honetan eta datu hauek kontutan harturik gure bailarak krisialdiaren irteera bidean dagoela. Pozik egoteko arrazoiak badirela uste dutenak badaude, langabezia utzi duten pertsonak orain dela urte bat baino zoriontsuagoak direla uste dutenak badaude, ezer egin gabe egoera aldatu eta hobera egingo duela sinesten dutenak badaude baina guk ez dugu horrela pentsatzen.

Langabeziaren datuak, hori diragaur egun, datu hutsak dira, estatistikak eta hauekin gu ez gaude pozik. Gizartean interbentzio psikologikoa egiteko erabiltzen diren pilulak bezalakoak dira. Lasaitasun edo apatia bulkatzeko medikamentuak dira. Guretako azken urtea ez da ona izan. Ez gara sortutako lanpostuen kalitateaz ari, ezta aurtengo urtean langileek bizi izan duten eskubideen zapalkuntzaz (hitzarmen desagertzea edota berriki onartutako legea non mutuek eskusartze osoa izango duten langileen gaixotasunen kudeaketan). Guretako onartezina dena zera da, inoiz bizi izan dugu eskubide murrizketa zabalena burutu eta gero krisialdia sortu zuen sistema basati hau, inolako autokritikarik gabe berriro zerotik haziko balitz bezala agertzea. Ez dugu ezer ikasi? Hain odolgabea da gure gizartea? Ez dugu uste.

Agian gizarte mugimenduak ez dugu gure papera ongi bete eta alternatiba errealeak planteatzeari batera gizarte aldaketa sakonaren bidean murgildu beharko dugu gure borroka. Garaigogorak datoz, eskubideak berreskuratzeko bidea latza izango da eta gure helburuak oso argiak izan beharko dira. Oraingoan, baliabideak eta helburuak ongi neurtuak izan beharko dute.

Abian plataforma

hara zer dien

Datu interesgarri batzuk

Udaldiko oporretan gaude bete-bete, eta festak nonahi ditugu Sakanan. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetako prebentzio programetan ari garenon ustez, une garrantzitsua da oraingoa toxikologiaren eta auzitegiko medikuntzaren institutuak egindako azken ikerketaren berri emateko. Izan ere, ikerketaren datu batzuek aukera emanen digute gogoeta egiteko eta, nola ez, drogak kontsumitzerakoan behar bezalako portaera izateko (gidatzerakoan, adibidez).

2013ko azken ikerketa horrek, trafiko istripuetan izandako hildakoen toxikologiari buruzkoak, erakusten du trafiko istripuetan izandako 784 biktimaren gainean hartutako laginetik, 557 gidariak izan zirela. Hil ziren gidari horien %43,09k positibo eman zuen, odolean alkohola, beste droga batzuk edo psikofarmakoak kontsumitzeagatik. Beste datu bat nabarmendu behar da ikerketa horretan. Aurreko urteetan konparazioz jasotako datuei dagokionez, honako hauek izan ziren drogetan positibo eman

zuten hildakoen buruzko emaitzak:

Psikofarmakoak 2012an: %13,49
Psikofarmakoak 2013an: %14,36
Beste sustantzia batzuk 2012an: %12,68

Beste sustantzia batzuk 2013an: %15,26

Alkohola 2012an: %35,12
Alkohola 2013an: %28,90

Emaitzen arabera, 2013an beste droga batzuk eta psikofarmakoak kontsumitzeagatik hildako gehiago egon ziren 2012an baino. Alkoholari dagokionez, 2013an gutxiago egon ziren 2012an

baino.

Toxikoetan positibo eman zuten txostenak erakusten ditu bakarrak edo beste droga batzuekin batera hartzeagatik honako emaitza hauek egon zirela:

Kokaina: %55,3
Cannabisa: %43,5
Morfina eratorritako opiatoak: %16,5
Anfetaminak eta horri lotuak: %4,7
Ketamina: %2,3

Prebentzio programak

gutunak

Atal honetan ahalik eta irizki gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutziak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Israelek bere holokaustoa ahaztu du?

Arturo Carreño Parras. Altsasuko Ezker Batuko zinegotzia.

60 urte baino gehiago dugunok eta gerraren ondoren jaio garenok (1948) ezin dugu sinetsi Israel Palestinako herriarekin egiten ari dena. Nire osaba Jose Carreño Saez, milaka errepublikar bezala Frantziar exiliatua, nazien eskutan gelditzeko zori-

txarra izan zuen. 1940an, 22 urterekin, deportatua izan zen, lehenik Buchenwaldera eta gero Mathausen-Gusen exterminio eremura. 5 urtez infernu hartan biziraun zuen.

Hellinen eta Altsasun bisitatzen gintuenean Heriotza Zelaietako istorioak kontatzen zizkigun: emakume eta haurrak dutxetan sartu eta sekula ez zituela bizirik ateratzen ikusten, bizitzan hildazeuden deportatuei heriotzara arte emandako jipoiak, Hartheimgo gazte-

luan hurrekin, emakumeekin eta adinduekin egindako esperimentuak eta abar.

Gaur sinestezina dirudi, 6 milioi judu exterminatu ondoren eta egoera haietan pasatutako okerrenarekin: Palestinako herria txikitze balorea izatea; defentsarik gabeko zibilen kontra gerrako makineria handia erabiltzea, iragan hurbilari begiratu gabe eta, gainera, amorrutotsagarri; lurra kolonizatzen eta eremuak horma izugarriekin

banatuz.

Zentzugabekeria eta beharrik gabeko hilketa horiek herri juduari ondorioak ekarriko dizkiotela uste dut. Mundu honetan ez dago inor soberan eta, gutxienez bakean bizi ahal izateko, elkar ulertzea behartuta gaude. Hitz egin ezazue, konponbidea bila ezazue eta, batez ere, nazioartek ez dezala beste aldera begiratu eta betearaz ditzala giza eskubideak. Gerrarik ez.

Osoirik www.guaixe.net

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut

Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia Mauleon
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburuordetza

PRESO ETA IHESLARIEN ESKUBIDEEN ALDEKO AFARIA DEBEKATUTA: Espainiako Auzitegi Nazionaleko Eloy Velasco epaileak preso eta iheslarien esku-

bideen alde Bakaikuko herri mugimenduak atzoko deitua zuen afaria debekatu zuen, ETako kideak publikoki goratzeagatik eta biktimen mina handitzeagatik.

sakanerria >>

Uda-ikastaroak

SAKANA

Nekazaritza birsortzailea, Uda-Ikastaroak despeditzeko

Larunbatean, 9:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara Etxarriko Udaletxean kedada. Ondoren Mandoibai dermioko herri baratzean.

Sakantzen Sareak antolatutako Uda-Ikastaroetan azkena bihar izanen da Etxarri Aranatzan. Izena ematen dutenek (momentuz 20 pertsonak) bertako lurreko mikroizakien hazitegiak, biongarriez edota bokashiaz gehiago jakiteko aukera izanen dute. Hau da, nekazaritza birsortzailea zer den ikasiko dute parte-hartzaileek. Irakaslea Gipuzkoako Ximaupila elkarteak eta Eus-

Izena ematea

sakantzensarea@gmail.com helbidera idatziz eta 685 75 90 56 telefonora hots eginez. Toki mugatuak daude.

kal Herriko Nekazaritza Birsortzailea Sustatzeko taldeko kide bat izanen da.

Nekazaritza birsortzailearen helburua lurzorua oreka berreskuratzea da. Horretarako ura eta materia organikoaren galera saihestu nahi dute, landareak kanpoko intsumorik aplikatu gabe osasuntsu garatzeko. Teknika horien bidez ura denbora luzeagoan gordetzea lortzen da, bertako mikroizakien osasuna hobetzen da eta lurzorutik datorren karbono dioxido isurketa gelditzen da. Nekazaritza birsortzailea bertako ezagutzetan eta baliabideetan oinarritzen da, lurra lehengorazten lagunduz.

Biharko ikastaroa Mandoibai Elkartearekin batera antolatu du Sakantzen Sareak. Etxarri Aranatzan nekazaritza ekologikoaren inguruan lan egiten duen elkartearekin.

Sakanako historia bertatik bertara



Ezpilleta elkarteak Uda Ikastaroetan Sakanako historia ezagutzeko aukera eman du. Asteartean eta asteazkenean Utzuganeko gelan 31 ikasle elkartu ziren. Sakanaren bilakaera historikoa ezagutzeko Erdi Arotik gaur egunera bitarteko populazioaren garapena azaldu zuten. Historian barna lursail publiko eta pribatuaren arteko desberdintasunak azaldu zituzten. Bide erromatarren eta megalitismoaren inguruko azalpenak ere eman zituzten irakasleek. Ikastaro hori etzi despedituko da. Igandean, 10:00etan, hitzordua jarrita dute Uharteko Arakilen eta handik Agiri despopulatua ezagutzera joan dira. Han egindako ikerketen berri eman ondoren, Gordetxeko trikuharrien ibilbidea egingen dute, 13:00ak bitartean.

>> Etxarri Aranatz

Mandoibai elkarteak eta baratza kolektiboa

Biharko ikastaroa elkarlanaren fruitua izanen, Sakantzen Sarearen eta Mandoibai elkartearen artekoa. Azken horretako kideak **Beleixe Irratian (FM 107,3)** izan dira euren esperientziaren berri emateko. Joxan Jakak gogora ekarri zuen duela lau urte hasi zirela hainbat etxarriar baratze ekologikoez hizketan. "Beharra zegoen eta jendearen arteko komunikazioa falta zen", zehaztu du Jakak.

Kezka halakoetan aritutako jendea ekarrarazi zuten, "nondik jo azal ziezaguten. Hortik aurrera talde polit bat elkartu ginen eta martxan jarri ginen". Udalari egitasmoa aurkeztu eta lur eremua utzi zien. Bigarren urtea da baratzeekin. Pasa den urtea antolatzen ikasten eman zuten. Hainbat gabezia zituz-

tela esan du Jakak. Orreaga Zubeldiak gaineratu duenez, "aurreko urtea etsigarria izan zen euria egin zuelako eta ezin izan genuen ezer egin. Orain poza ematen du hara joan eta ikustea".

Antolaketa

30.000 metro karratu utzi zien udalak. Haien abiapuntua baratze ekologiko bat da. Hortik 500 metro hartu dituzte baratzearako eta 10 bat pertsona aritzen dira hura lantzen. Dagozkien kuotak ordaintzen dituzte. Asanbladan erabakitzen dituzte gauzak. "10 pertsonak diseinatu behar dugu baratza, 10 pertsonak adostu behar ditugu erabakiak" azaldu du **Arantzak Beleixe Irratian (FM 107,3)**. Talde baratzeari aritu nahi duen edozein etxa-



Mandoibai herri baratzeako kideetako batzuk. FACEBOOK

rriarrari handik pasatzera gonbidatu diote, "jendearendako tokia dago, zabalik dago taldea".

Jakak Mandoibai elkarteak kideen arteko komunikazioari emandio garrantzia. "Batuetan, batek bakarrik gehiago egin dezake. Baina motz gelditzen da. Jende artean eginda gehiago kostatzen da baina

gauzak hobe ateratzen dira". Zubeldiak elkarlanean aritzeari emandio balioa: "nik ez dakit ezer ez eta taldean badago dakien jendea eta irakasteko prest dagoena". Zubeldiak dioen moduan, "biltzen gara, gure artean baratzeak kontuez aritzen gara eta lurra zaintzen eta haren fruituak jasotzen ikasten dugu".

Ideiak

Baratzekin hasi badira ere, baina sentsibilitate ezberdinak daude kideen artean eta egitasmo ugari dituzte. Batzuk ikastetxeekin lan-keta bat egin nahi dutela adierazi digute: "Garai batean gure gurasoek eramaten gintuzten, baina gaur egun herri bat da, baina hiriren bizimodu berria dugu. Haurrikastan hasteko modu bat da". Nekazaritza ogibide gisa hartu nahi duenak hor hasteko toki bat izan dezakeela ere esan dute **Beleixe Irratian (FM 107,3)**. Baina asanbladatik pasa beharko luke. Aldi bat egon eta gero beste toki batean segitzea. Halako ideiak eta gehiago dituzte buruan. Nekazaritza ekologikoa lantzen ikasi nahi duenak aukera ederra duela azaldu dute.

maría eugenia
Arrainak
www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

Hegaluzearen garaia!!!
Enkarguak hemen:

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

SAKANA

Amalurraren alde bizikleta gainean

Asteartean eta asteazkenean Ekologistak Martxan-ek antolatutako Ekomartxa Sakana zeharkatu zuen

Horia kolore nagusi den tropela izan genuen asteartean eta asteazkenean Sakanan. Fracking-aren edo haustura hidraulikoaren kontra Ekologistak Martxan taldeak antolatutako bizikleta martxako etapa akabera eta hasiera hartu ditu Sakanak. Lurpeko haitzetan dagoen gasa ateratzeko teknika-aren kontra protesta egin eta haren berri zabaltzea da igandean Donostian despedituko den martxaren helburua.

Baina bidean ekologismoaren aldetik praktika positiboak direnak ere ikasi dituzte martxistek. Hala, asteartean eguzki energia prestaturako txistorra eta barazki-jatea egin zuten Urbasan. Etxarri Aranatzen, berriz, hondakin bilketa sistema berriari buruzko azalpenak jaso zituzten.



Ekomartxako parte-hartzaileak Olatzagutitik ateratzen.

Aldi berean, Ekomartxan parte-hartzen ari diren 200 bat pertsonak ingurumenaren alde tokian tokiko gatazken berri jaso dute. Asteartean 3 Mugak Batera plataformako kideek Olatziko por-

landegiaren errausketa egitasmoa zertan den azaldu zieten. Martxistek gero porlandegi parean kontzentrazioa egin zuten. Asteazkenean AHT eta goi tentsio-ko argindar proiektuen egitasmo-

ez eta haien eraginez azalpenak jaso zituzten. Pasa diren herrietatik bizikletako txirrinak joz eta aldarrikapenak oihukatuz nabarmendu izan dira Ekomartxako kideak.

Irañeta

Erromeriako hirugarren igandea

Agorrila aurreko hiru igandetan erromeria bana izaten da Irañetan. Hilaren 13an San Gregorio ermita-ko mezan elkartu ziren irintarrak. Igandean, berriz, San Migel Berri ermitaren txanda izan zen. Etzi, aldiz, San Pedro Martir ermitaren txanda beharko luke, baina hura eroria dagoenez, Basabeko bordan egiten dute elizkizuna. Ondoren udalak gazta, txistorra eta ardoz hornitutako otamena eskaintzen du. Irintarrek euren erromeria aldia agorrilaren 3an despedituko dute. Egun horretan Aralarko santutegian izanen da meza eta ondoren han geldituko dira bazkaltzera.

Bakaiku

Auroroak Peraltako Topaketan

Igandean XXXVIII Auroroen Topaketa hartu zuen Peraltak eta han izan zen bakaikuar talde bat. 3.500 pertsona inguru elkartu ziren topaketan. Herriko auroroen ordezkari eta alkatearen harreraren ondoren, Peraltan barna auroak kantuan ibili ziren hainbat taldeetan banatuta. Hura despeditu ondoren, erraldoiak eta txarangak lagun mezara joan ziren. Musika falta izan ez zen herri bazkariarekin despeditu zen ospakizuna.

SAKANA

Tren azkarren lotura Sakanan barna

Sustapen Ministerioak Hego Euskal Herriko AHTren lineak, behin behinean, ibarrean barnako trazatuarekin lotzeko asmoa berretsi du

Hilaren 9an Nafarroako eta EAEko abiadura handiko trenen lineak lotzeko Protokolo Jarraipen Batzordea bildu zen. Sustapen Ministerioak Hego Euskal Herriko bi gobernuetako ordezkariak jakinarazi ziren bi lineak Gasteizen lotu nahi dituela, behin behinean bada ere. Hala, Ezkio-Itsasoko lotura gunea baztertua gelditzen da oraingoz.

Lotura hori egiteko Sakana zeharkatu beharko lukete trenak. Ministerioak egungo trenbideari hirugarren erraila gehitu nahi dio. Hala ere, behin betiko erabakirik ez zuten hartu. Uda ondoren ingurumen tramitazioaren informazio ikerketa hasiko dute. Bi lineak lotzeko hainbat aukera aztertuko dituzte.

Bestalde, Sustapen Ministerioak Aragoiko parlamentari sozialista bati emandako erantzunean jakinarazi du ez duela lehentasunez jotzen Kantauri eta Mediterraneo aldeak AHT bidez lotzea. Diario de Noticias egunkariak jakinarazi duenez, lehentasun mailak ezarri ditu ministerioak eta haien artean ez dago Sakana hartuko lukeena. Bigarren mailako lineen lanak noiz egingen diren ere ez du zehaztu.

Altsasu

Alde Hemendik aldarria zabalduko du atzera ere Ospa egunak



Mugimenduko kideak iragarri dute agorrilaren 30ean izanen dela Ospa Eguna.

Ospa egunaren laugarren edizioa agorrilaren 30ean izanen dela aurreratu dute mugimenduko kideak. Egun hori "Alde Hemendik aldarria ozen kaleratzeko eta errepresio basati honekin bukatzeko borrokan jarraitzeko" baliatu nahi dute. Horregatik, altsasuarrek egunean parte hartzera deitu dituzte.

Ospa egunari begira, hura anto-

latzen duen mugimenduko kideek uste dute "herri aktibazioa ezinbestekoa dela errepresio basati horrekin bukatu nahi badugu". Ospa mugimenduko kideak kezu dira urte guztian polizia ezberdinen aldetik "jasaten" duten errepresioarekin. Horren adibide gisa jarri dituzte "eguneroko kontrolak, herritarrei egindako jazarpenak eta mehatxuak, probokazio-

ak, herrian jasotako isun politiko- en kopuru izugarria (30.000 euro), kartel eta pankartak kentzea" edota Donostiako herri-harresian parte hartu zuen gazte bati egindako urte eta erdiko espetxe zigora eskaera. Pasa den urteko Ospa egunaren kontura Altsasuk "aste betez sufritutako okupazio militarra" ere salatu dute mugimenduko kideek.

Batzar zelatua

Ospa eguna antolatzeko batzarra zegoen deituta pasa den ostegunean. Mugimendu antolatzailetik jakinarazi dutenez, batzarra hasi aurretik kalez jantzitako hainbat polizia ibili ziren Alde Zaharrean. Ospa mugimendutik azaldu dutenez, batzarra hastear zela polizia bikote bat gertuko taberna bateko terraza batean jarri zen eta haietako batek mugikorra eskutan eta aurikularra belarran zuela. Alde egiten ez zutela, batzarra has-teko zain zeudenak haiengana hurbildu ziren eta poliziak grabatzeari ekin zioten. Jendeak haiek inguratu zituzten eta kalez jantzitako poliziak alde egitea erabaki zuten. Ospa mugimendutik azaldukoaren arabera, herritik kanporatu zuten bikotea. Baina bost minututara kalez jantzitako polizia bikote bana zegoen plazan eta udaletxe aurrean. Hala ere, batzarra egin ahal izan zutela azaldu dute.

Iturmendi / Altsasu

Palestinaren alde

Bihar, 19:30ean, Altsasuko udaletxe aurrean kontzentrazioa izanen da

Askapenak eta Iturmendiko Gazte Asanbladak (IGA) deituta, domekan 150 bat pertsonak kontzentrazioa egin zuten Iturmendiko plazan. Palestinako genozidioa gelditu. Israel hiltzaile zioen pankartaren atzean bildu ziren. Elkartutakoek Israel-ek eraso militarra gelditzeko eta konponbiderako urratsak emateko eskatu zitoten. Palestinan "1948ko okupazioaren hasieratik bizirik

dirauren zapalketa inperialista" gaitzetsi zuten. Palestinarrek euren herria defendatzea baino beste aukerarik ez dutela eta gatazka ez dela bi parte berdinen artekoa ere nabarmendu zuten.

Bihar Altsasun

Dei horixe egin du Askapena erakunde internazionalistak. Israel-ek Gazako eremuaren kontrako eraso salatzea eta palestinarrei elkartasuna adieraztea du helburu bihar-



Igandean Iturmendin egin bezala, bihar Altsasun egingen dute elkarretaratzea.

ko kontzentrazioak. Askapenatik adierazi dutenez, "Palestinari elkartasuna adierazteko biderik egokiena boikot, desinbertsio eta zigor kanpaina da, BDS kanpaina". Israeli

arlo ekonomikoan, kulturean, akademikoan eta instituzionalean boikot egin eta horretan sakontzera deitu du Askapenak, "palestinarr-ek eskatu bezala".

» Altsasu

Hariztiaren interpretazio bideko lanak hasi dira

Ontzigtan erabiltzeko basoak nola kudeatzen ziren erakutsi eta agorriak akaberarako despidituko dituzte lanak

Dantzalekura iritsi aurretik dagoen aldapan, ezkerretako bide batetik abiatu eta Usolarrainen bukatuko da bidea. Ibilbide motz horretan ontzigtzarako basoen kudeaketarako azalpenak emanen dira zuhaitz jakin batzuen bidez. XVI. mendeko San Juan baleontziaren errepika egiten ari den Albaola elkar-teak egin du proiektua eta Itsasorako zuraren bidea asmoaren zati litzateke. Bide hori Sakana-ko hariztietan hasi, Zerain, Beasain edo beste herrietako oletatik pasaz Ondartxo ontziolan bukatuko da.

Bideko lanak Altsasuko Udalak egin ditu, 30.000 euroko aurrekontuarekin. Udalak Europako (FEADER) eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jasokoditu. Bidea hartu behar zuen tokia garbitzeko, bi langile kontratatu ditu udalak. Aste honetan, berriz, Coyser enpresako langileak ari dira bidea dena prestatzen. Udalak hartutako bi langileek, bestalde, panelak jarriko dituzte eta Usolarraingo erretegiak ere konponduko dituzte.

Bide horrekin Altsasuko Udalak Dantzaleku-Usolarrain aisialdi guneko eskaintza indartuko luke. Igerileku, atletismo pista eta futbol zelaiaz aparte, beste bi ibilbide daude Dantzaleku eta San

Pedrolotzen dituztenak. Pasa den urtean prestatu zuten borobila ixten duen bidea. Baina auzolanean egindako bi zubiak jartzea falta zen eta lan horiek aurten egingen direla esan digu Juan Carlos Orellana zinegotziak.

Bestelakoak

Astearteko bilkuran Altsasuko Udalak erabaki zuen 30.000 euro bideratzea kaleen konponketara. Dantzalekutik San Pedrozelairako bidea konpontzearekin batera Ondarria industrialdeko kaleak ere konponduko dira. Bestelako lan txikiak egitea ere ez du baztertzeko udalak. Bilkura berean, bestalde, udalak erabaki zuen alkatearen abokatu gastuak ordaintzea. Ospa



Enpresako langileak ibilbidea prestatzeko lanetan.

egunagatik alkatea auzitegira deitu zuten eta orain bere defentsa gastua ordaintzea erabaki du udalak, 227 euro.

» Arbizu



Arbizuko udaletxea.

Udalak dozena bat lursail eraikigarri enkante bidez salduko ditu

Haietan 15 etxebizitza egiteko aukera dago

Arbizuko Udalak gutunazal itxien bidezko enkante publikoan herrian bertan dauden dozena bat lursail urbanizatu salduko ditu, 6 lotetan banatuta. Guztiak salduz gero 489.855 euro jasoko lituzke udalak. Haietan interesa dutenek euren

Lotea	Non	Lursailak salgai	Egin daitezkeen etxeak	Lizitazio kopurua
1.	San Juan Bidea	6	5	138.240
2.	Iruña etorbidea	1	1	44.115
3.	Arnatz	1	1	43.140
4.	Akerruntza-Berriain artean	1	1	51.355
5.	Akerruntza	1	2	75.680
6.	Akerruntza	1	5	137.325

eskaintzak irailaren 19ra arte aurkeztu ditzakete udaletxean.

» Arakil

Haurrendako aisialdi campusa

Agorrileko astearte eta ostegunetan izanen da. 4ra arteko epea dago izena emateko

Arakilgo 6 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzendutako multi-aisialdi campusan parte hartzeko aukera dute heldu den hilabeteetan. Agorrilaren 5etik 30era, astearte eta ostegunetan 10:00etatik 13:00etara, egingen da campusa. Haurrek kirola praktikatu, tailerretan aritu, eskulanak egin, jolasak, mendi-

irteera, txangoak egin, sukaldaritza aritu eta makina bat kontu gehiagotan parte hartzeko aukera izanen dute.

Gainera, parte-hartzaileek Arakilgo herriak ezagutzeko aukera izanen dute, batetik bestera ibiliko baitira, betiere, herri bakoitzak dituen baliabideak erabiliz. Irurtzuna edo txangoak egitera ere joanen dira. Izena ematen duten haurrak Ion Olló, Ibai Huarte,



Ander Unanua, Xabier Huarte eta Iker Unanua begirale arakildarren ardurapean egonen dira.

Etixerako aseguruia

%45 era arteko deskontua*

* Kontratu berrietarako

Brikolaje zerbitzua DOAN

MAPFRE ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM 948 563 354 • jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 behekoa • ALTSASU

PPSOE,

ETB

digitala

Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

arbizuko udala

URBANIZATUTAKO LUR-SAILEN SALMENTA

Arbizuko Udaleko Osoko Bilkurak, 2014ko uztailaren 15ean egindako bilkuran, onartu zuen enkante publiko eta gutunazal itxien bidez honako Partzela eta loteen salmenta gauzatzea, guztiak Arbizuko 1. Poligonokoak direlarik:

LOTE 1 - 441tik 446ra - UE-4an
LOTE 2 - 469 - UE-9an
LOTE 3 - 1102 - UE-13an
LOTE 4 - 1140 eta 1141 - UE-14an
LOTE 5 - 1156 - UE-16an
LOTE 6 - 1157 - UE-16an

Baldintzen agiria Udalaren bulegoetan eta Nafarroako Gobernu-kontratazio atarian dago nahi duenaren eskura:
<https://hacienda.navarra.es/sicportal/mtoSubastas.aspx?od=140717130518F93D154E>

Arbizun, 2014ko uztailaren 18an.
Alkatea, Miren Mendiñueta Lakuntza.

ARBIZUKO UDALA

Bakaiku:

Santiago festak



>> Uztailak 25, ostirala

9:00etan Dianak trikitilarien eskutik.
12:00etan Santiago meza.
13:00etan Herriko musikarien kontzertua plazan.
18:00etan Altxorraren bila.
19:00etan Mikel Lasarteren erakustaldia motozerrekin. Sakanako Harri Jasotze eskola.
20:00etan Auzatea Gabriel Aresti barnetegiaren eskutik.
20:30etik 22:00etara eta 00:30etik 4:00etara La Banda del Jefe Bigun taldearen kontzertua.

>> Uztailak 26, larunbata

11:30etik 13:30era Haurrendako jolas parkea eskoletako lorategian. Puzgarriak,

Segway, Craybike eta zezen mekanikoa.
12:00etan Gure nagusien aldeko meza.
12:00etan Sakaranga txaranga plazan.
14:30ean Jubilatuen bazkaria eta omenaldia elkartean. Ondoren, Iñaki Bizkai musikariaren emanaldia.
16:00etatik 19:00etara Haurrendako jolas parkea eskoletako lorategian. Puzgarriak, Segway, Craybike eta zezen mekanikoa.
19:00etan Altsasuko dantza eskolako dantzariaren emanaldia.
19:30ean Sakaranga.
20:00etan Auzatea Bakarrekoez Elkartean eskutik.
22:00etan Zezensuzkoa.
20:00etatik 22:00etara eta 00:30etik 4:00etara Tximeleta taldearekin dantzaldia.

Bakaikuko herri mugimenduen egitaraua

>> Uztailak 25, ostirala
14:00etan Gazte bazkaria Aiztin.
18:00etan Motxila Band elektrotxaranga herritik zehar.

>> Uztailak 26, larunbata
20:00etatik 21:15era Gure ikurren aldeko sinadura bilketa. "Guztion Nafarroa, guztion ikurrak".
22:00etan Gazte afaria.
1:00etan Manifestazioa plazatik: "Euskal preso eta iheslari politikoak etxera!"

>> Uztailak 27, igandea,
Mozorro eguna
 Denok moztortzera!
20:00etan Fotocol-a.

>> Uztailak 27, igandea

12:00etan Bakaiku marraztu.
13:00etan Raices Navarras jota taldearen kontzertua plazan.
13:30ean Auzatea jubilatuen elkartean eskutik.
18:30ean Kalderete txapelketako prestakizunak.
22:00etan Kaldereteen afaria plazan.
20:00etatik 22:00etara eta 00:00etik 3:30era Trikidantz taldearekin dantzaldia.

Olazti:

Santa Ana festak

>> Uztailak 25, ostirala

11:00etatik 14:00etara Jokutren jolasak Sutegei parkean (euria eginez gero kiroldegian).
12:00etan Hamabietakoa San Migel elkarrekin eskainia.
13:00etan Bermut kontzertua La Ribera Canta taldearekin. San Migel plazan.
14:30ean Haurren bazkaria Sutegei parkean (euria eginez gero Sutegei gimnasioan).
15:30etik 18:30era Ur parkea igerilekuan.
18:00etan Erburua Padel Txapelketako finala padel pistan.
18:30ean Bike Trial Show: Benito Ros. Futbito pistan. Euria eginez gero, Erburua kiroldegian.
20:00etan Banaketa San Migel plazan.
20:30etik 22:00etara Mariatxi Zacatecas San Migel plazan.
21:00etan Bonba japoniarrek Intsumisioaren plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 02:00etara Kontzertua: AZDZ San Migel plazan.
02:00etatik 04:00etara Musika DJ Lekurekin San Migel plazan.

>> Uztailak 26, larunbata.

Santa Ana.

10:00etan San Migel elkarteko Goxua Pilota XLIII. Txapelketako finalak.
11:00etatik 12:00etara Futbito Txapelketa: 3. eta 4. postuak. Futbito pistan.
12:00etatik 13:00etara Futbito Txapelketaren finala. Futbito pistan.
12:00etan Hamabietakoa Santa Anaren eskutik.
12:00etan Erraldoi, Buruhandi eta Gaiteroek lagunduta, mezara.
13:30ean Bermut kontzertua Juan Antonio Martinez Triorekin San Migel plazan.
14:30ean Untxi kalderete lehiaketa Sutegei parkean (euria egingo balu eskolako pilotalekuan).
14:30ean Jubilatuek eta adinduendako bazkaria Kamiogaina elkartean. Bazkalonduan Luis y Ana bikotearekin dantzaldia.
17:00etan Txirrindularitza eskolen proba Erburua kiroldegian inguruetan.
17:30etik 19:30era Txarantukada musika animazioa.
18:00etatik 20:00etara Itsasoko Kirolen Kulkari parkea futbito pistan (euria eginez gero Erburua kiroldegian).



19:30ean Txirrindularitza Eskolen Probaren sari banaketa.
20:00etan Banaketa San Migel plazan.
20:00etatik 22:00etara A Medio Camino, Antonio Vegari omenaldia San Migel plazan.
21:00etan Bonba japoniarrek Intsumisioaren plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 03:00etara Musika San Migel plazan Jon Urbietta DJarekin.

>> Uztailak 27, igandea

9:30ean XLIII. Pilota Txapelketako finalak Sutegei-San Migel elkartea.
12:00etan Bordetxe abere zirkoa futbito pistan.
12:00etan Hamabietakoa Kamiogaina elkartean eskutik.
13:00etan Bermut kontzertua Iparfolk taldearekin San Migel plazan.
14:30ean Herri bazkaria. Animatu eta etorri moztortzuri! Sutegei parkean.
17:00etatik 20:00etara Erronda Elektrotxarangarekin.
19:00etan Kaleko antzerkia: La diva es una tombola. Sarasate plazan.
20:00etatik 22:00etara Musika San Migel plazan Alaiiki taldearekin.
21:00etan Bonba japoniarrek Intsumisioaren plazan.
21:00etan Hegaluzze Parrillada Vicente Argomaniz plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etan Cavafoc kaleko ikuskizun ibiltaria. Irteera: Erburua kiroldegitik.

Olaztiko herri mugimenduen egitaraua

>> Uztailak 25, ostirala.
Preso eta errefuxiatuen aldeko eguna.
19:30etik 21:00etara sinadura bilketa plazan.
20:00etan Kontzentrazioa plazan: "Euskal Presoak Euskal Herrira".
22:00etan Afaria plazan.

>> Uztailak 26, larunbata.

Kuadrillen eguna.
11:00etan Futbito Txapelketako 3. eta 4. postuen partida.
12:00etan Futbito Txapelketako finala.
19:30etik 21:00etara Sinadura bilketa plazan.

>> Uztailak 27, igandea.

Mozorro eguna.
14:30ean Mozorro bazkari herrikoia Sutegein.
Gau osoan zehar Txupito Gaua.

01:00etatik 04:00etara Musika San Migel plazan Alaiiki taldearekin.

>> Arakil

Urritzolak hartuko du Arakilgo eguna

Larunbatean ospatuko da festa, Itxasperi-ko Santiagon goizean, eta Urritzolan eguerditik aurrera, Urritzolako festekin bat eginez.

Arakildarrek orain arte Santiago egunean ospatzen zuten Arakilgo eguna, garilaren 25ean. Itxasperi-ko Santiago ermita zuten topagune. Aurten, aldiz, egun bat atzeratu dute jaia, Urritzolako festekin bat egiteko. Hortaz, Arakilgo egunaren ospakizunak bihar izanen dira, garilaren 26an, larunbatarekin. Goizean, ohienez, Itxasperi-ko Santiago ermitak eta ermita aurreko zelaia hartuko du ospakizuna. Erraldoien kalejira, meza, 2013an jaiotako haurrei eta edade-

tuenei omenaldia eta hamaiketako ez dira faltako. Eta, ondoren, Urritzolan jarraituko du festak.

Arakilgo egunaren harira erakusketak ez dira faltatzen eta aurten bi izanen dira, Urritzolan: traktore zaharren erakusketak eta Arakilgo I. Argazki Lehiaketaren erakusketak. 200 pertsona inguru bilduko dituen herri bazkariaren ondoren, ikuskizuna, haurrendako jolasak eta musika ez dira faltako. Gauean, Urritzolako festekin bat eginez, kontzertuak izanen dira eta gaupasarekin emanen zaio bukaera Arakilgo festa egun handiari.



Omenaldirik eta aitortzarik ez da faltako bihar.

Arakilgo eguna

Itxasperi-ko Santiago zelaian
11:00etan Egurretako plazatik erraldoien konpartsaekin Itxasperi-ko zelairaino jaitsiera.
11:30ean Izurdiagako Forjas Brunen eskutik, forja artisautzaren erakustaldia.
12:00etan Itxasperi-ko ermitan patroiarren omenezko meza, Arakilgo koralariekin.
12:45ean Arakilgo Udalak 2013. urtean Arakilen jaiotako haurrei omenaldia eta bailarako pertsona nagusienari errekonozimendua.
13:00etan Hamaiketako zelaian. Uharte Arakilgo erraldoien konpartsa, trikitixa eta Orritz taldekoen dantzaldia.

Urritzolako herrian

14:00etan Traktore zaharren erakusketak.
14:00etan Arakilgo I. Argazki Lehiaketaren argazki erakusketak elkartean.
14:30ean Txalapartaren doinuak.
14:45ean Herri bazkaria Urritzolako plazan.
16:30ean Bazkalostea umorea eta magia nahasten dituen HABLALAKABRA antzezlanarekin.
17:30etan Puzgarriak eta haur-jokoak udako ludotekaren eskutik.
17:30ean Joxe Angelekin dantzaldia.
20:00etan Sari banaketa.
21:30ean Afari-parrilada Urritzolako bizilagunen eskutik.
23:00etan Kontzertua: Txep+ Lagunak eta Nekez.
2:00etan Gaupasa.

Kaixo
 Kafetegia - Jatetxea

JATETXEA - RESTAURANTE - KAIKO - BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22
 948.46.91.24 ALTSASU
 www.restaurantekaixo.com

9 lagunendako
TAXIA

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

SAKANA

Sakatxartela: asteburu honetan, atera txartela

Bierrik Fundazioaren
Beleixeguaixe txartelarekin
asteburu honetan erosketak egiten
dituztenak 2 sari ederren zozketan
sartuko dira

Bierrik fundazioak bere babesle diren 1.550 pasa sakandarrei, asteburu honetan euren Beleixeguaixe txartela erabiltzera gonbidatu die. Aipatu txartelarekin gure babesleek 80 establezimendu baino gehiagotan erabili dezakete txartela eta haietan hainbat deskontu eta abantaila eskuratzeko aukera dute. Baina, horretaz aparte, asteburu honetan Sakatxartela asteburua da, eta ohiko deskontuez gain, erosketak egiterakoan soilik euren txartela erakustegatik zozketa berezian sartuko dira.

Sariak: zaldiak, bazkaria, liburuak eta txartela

Asteburu honetan, garilaren 25etik 27ra Beleixeguaixe txartela erabiltzen dutenak bi sariren zozketan sartuko dira: lehen saria, bi lagunendako 2 zaldi ibilaldi Errotainen eskutik eta bi lagunendako bazkaria Otzaurteko bentan; eta, bigarren saria, Erein argitaletxe-ko liburu lote bat eta Beleixeguaixe txartel bat.



Babesleak eskertu eta bertako komertzioa sustatu

Bierrik fundazioak Sakatxartelasteburuak antolatzearekin bi helburu nagusi lortu nahi ditu. Batetik, Bierrik fundazioko babesle diren 1.550 pasa sakandarrei euren fidelotasuna eskertu, euren eguneroko erosketetan abantailak lortzeko aukera eskaintzeaz gain, sari bat lortzeko aukera ahalbidetuz. Bestetik, krisiaren eraginez ukituta dauden Sakanako den-

da eta establezimenduei bultzada eman nahi zaie, erosketak Sakanan egitea bulkatuz. "Herri osasuntsu batek gertuko merkataritza sarea izan behar du, herritarrek eta establezimendu txiki eta ertainez osatuta dagoena. Guztien artean herriari bizitza eta kolorea ematen diogu. Ibarrean erosiz sakandarren arteko harremanak sustatzen dira, herriari aberastu soziala emanez" adierazi du Bi-

Beleixeguaixe txartela

Bierrik Fundazioak 19 urteko ibilbidea egin du Sakanan euskarazko hedabideak sustatzen. Guaixe astekaria eta Beleixeguaixe txartela dira horren adierazle.

Bierrik Fundazioak sustatuta, Beleixeguaixe Txartela hiru helbururekin sortu zen. Alde batetik, fundazioaren beraren auto-finantziario maila igotzea. Bestetik, Sakanan bertan erosketak egitea bultzatzea eta bertako komertzioa sustatzea. Eta, azkenik, Bierrik Fundazioko bazkideei abantailak eskaintzea. Gaur egun, 80 establezimendu baino gehiagotan abantaila interesgarriak eskuratzeko aukera ematen du Beleixeguaixe txartelak, deskontu edo beherapen modura gehienetan, baita beste modutan ere.

Bierrik fundazioko kudeatzaile Ainhoa Urretagoienak. Bestetik, Bierrik fundazioak kudeatzen dituen Guaixe astekaria eta web orria eta Beleixeguaixe irrata (107.3 FM) aurrera egiteko babesleek eskaintzen duten

Beleixeguaixe txartela lortzeko

Deitu ondoko telefonoetara: 948 564 275 eta 948 562 107 edo www.guaixe.net atarian sartu eta Bierrik Fundazioko bazkide / babesle egin. Urteko 50 euro ordaindu behar dira. Erosketak Sakanako dendetan egiten dituzten babesleek erraz errekeratuko dute babesleztzagatik ordaindutakoa. Gainera, errenta aitopenean %25a desgrabatuko du foru administrazioak.

Hurrengo Sakatxartelasteburuak

Orain arte bi Sakatxartelasteburu egin dira, marsuaren 28tik 30era eta maiatzaren 30etik garagarriaren 1era. Asteburu honetakoa hirugarrena izango da. Ondoko Sakatxartelasteburuak irailaren 26tik 28ra eta azaroaren 28tik 30era izanen dira.

laguntza "ezinbestekoa eta bihotz-bihotzez eskertzekoa" dela nabarmentu du kudeatzaileak.

>> Altsasu

Festa parekideetarako formula

Gizon-emakumeek festaz gozatzeko aukera berak izateko etxeko lanak eta ardurak partekatu behar dira

Festak eta festa egunak gero eta gertuago dituzte altsasuarrek. Gozatzeko eta ongi pasatzeko egunak dira. Baina etxeko lanak eta ardurak ere bikoiztu egiten dira, esaterako: lagunak etxera afaltzera gonbidatuz, koadrilako bazkari-afariak prestatuz... Horretaz aparte, festa giroan emakumeek sexu erasoak jasateko arriskua handitu egiten da.

Horiek kontuan hartuta, Nik ere! Jai parekideen alde! kanpaina martxan jarri du lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea xede duen Altsasuko III. Itunak. Kanpaina horren bidez, mezu argi



Peñetako gizon-emakumeak kalean.

bat zabaldu nahi da: ezinbestekoa da jokaerak eta jarrerak aldatzea, emakume eta gizonen jaietan goza-

tzeko aukera berberak izan ditza- gun. Mezu hori zabaltzeko itunaren bultzatzailea eta koordinatzailea

Jai parekideak lortzeko neurriak

Bateratuz: etxean, elkartean, koadrilan... arduratsua izan eta lanak -etxeokak eta zaintzakoak- denon artean banatu. Horrela denok, emakumeek eta gizonen, izanen dugu festaz gozatzeko aukera.

Emakumei eta gizoni egokitu-tako ohiko rolak gaituz: emakumea edo gizona izan, jarduera guztietan parte hartu; hauda, gizo-

den udalak Altsasuko Dendarien Elkartearrekin (ADE) elkarlanean ariko da. ADEko bezeroek kanpai-

nen ohiko jardueretan emakumeek parte hartuz, eta alderantziz.

Jarrera sexistarik gabe: txiste matxistek, emakumeak objektu gisa azaltzen duten aipamen eta jarrerak... emakumeok bigarren maila batean jartzen dituzte. Aukera sexual guztiak errespetatuz.

Sexu erasorik gabe: ahozkoak, fisikoak nahiz sexualak.

Erantzukidetasunez: gizarte osoa da erantzule. Erasotua ez bazara ere, halako jarrerak eta jarduerak gaitzetsi.

nari buruzko esku-orria eta motxila bana jasoko dute opari heldu den astean. Iraila hasieran, berriro.

LAN ESKAINTZA: BIERRIK FUNDAZIOAK KUDEATZAILE/KOORDINATZAILEA BEHAR DU

Baldintzak:

- ◆ Enpresen kudeaketan eta Giza baliabideen kudeaketan esperientzia.
- ◆ Euskara maila altua eta euskalgintzan aritua.
- ◆ Enpresen Zuzendaritzan eta Komunikazio arloan ikasketak izatea baloratuko da.

bierrik
fundazioa

Bidali zure CVa bierrik@guaixe.net helbidera



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Bidai mezua zorion@guaixe.net -era edo hots egin **948 564 275** telefonora.

Hainbat aukera. Galdetu 948 564 275



Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · argi@guaixe.net




guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ/3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak
LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Dorraoko jaietarako 2 tabernak. Alokatzeko dira (abuztuaren 14tik 17ra). Interesatuak deitu 660 88 33 34 telefonora uztailaren 30a baino lehen.

Iharraren elkartea alokagai. Denon Kabia elkartea festetan alokatzen da. Abuztuaren 29tik irailaren 1era. Interesatuak hots egin dezatela abuztuaren 11a baino lehen telefono honetara: 628 46 94 77

Galdutakoak / opatutakoak

OPATUTAKOAK

Giltza sorta opatuta. Altsasuko plazako kioskoan hilaren 2lean. Galdutakoak Urtzi tabernara zuzendu.

GALDUTAKOAK

Kotxeko giltza giltzari batekin. Galdutakoak Etxarriko Aldapasoro-Malkorramendi auzoan, ostegunean (2014-07-10ean). Topatu duenak 948 46 06 14 telefonora hots egin dezala.

Ikastaroak

AES. "Enpresa ingelera II", Arbizon, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarriketa praktikak", Arbizon, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizon, ekaina "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizon, 30 ordu, iraila-urria; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizon, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatzen ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948-46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak.

Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrek

Saharaztan boletoen zenbaki sarituak. 1213-2151-2385-0109-3101-1026-3100-3173-0964. Mila esker zuen laguntzagatik.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomiko Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erditmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Sukaldaritza - trukea. Informazio gehiago

larrezabaldk@inigoarritza.com

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako

Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta

denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garga-ardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako

arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua

Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, asteartean Iruztunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazio@sakana-mank.com posta elektronikoz.

Gazteendako sexualitate aholkularitza.

Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intoxiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide!

Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak

behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzeko helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparaldeko Ikastolak laguntzeko.

Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

JAIOTZAK

- **Alain Gonzalez Mañeru,** uztailaren 13an Urdiainen.
- **Izaro eta Unax Maiza Ruiz,** uztailaren 13an Uharte Arakilen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufrizten ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izateko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

Ezgaizten Elkarrekin bazkideak eta laguntzaileak behar ditu.

Sakanako Ezgaizten Elkarrekin bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaizten aisia behar dute. Laguntzaileak izan nahi baduzu deitu 649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaizten Elkarrekin.

Itzulpen zerbitzua. Sakanako Mankomunitatearen zerbitzua ibarreko udalek eta mankomunitateek, komertzioek, enpresek eta elkarrekin erabil dezakete urte guztian zehar. Doakoa da. Itzuli beharrekoak jendaurrean edo agerian egon behar duen testua izan behar du. Eskariak mankomunitateko euskara zerbitzura egin behar dira (948 464 840 edo itzulpen@sakana-mank.com) Ez dira bilera edo aktak itzuliko, ezta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den ezer ere. Gehienez ere 5 orrialdeko dokumentuak itzuliko dira.

TXIRRINDULARITZA

ERBITI PIRINIOETAN: Tourra Pirinioetako etapetan murgildua dago. Atzoko emaitzen faltan, Nibali zen liderra, Alejandro

Valverderen aurretik. Hain zuzen ere, Valverde laguntzeko lan gogorra egiten ari da Hiriberriko Imanol Erbiti.

Irristaketa

Ioseba Fernandez Alemanian

Europako Abiadurako Irristaketa Txapelketan parte hartuko du

Astelehenean, garilaren 28an abiatuko da Europako Abiadurako Irristaketa txapelketa, Alemaniako Geisingen hirian. Espainiako selekzioak 22 irristalari aukeratu ditu bertan lehiatzeko eta tartean Ioseba Fernandez dago. Iturmendiko irristalari handiak iaz urrezko domina jantzi zuen 300 metroko erlojupekoan eta aurtenera podiumeko goiko koskara igotzea lortzen duen.



Disko jaurtiketa



June Kintana junior mailako Mundialetan

Finaletara heldu eta munduko 8 onenen artean sailkatzea da bere helburua

Pamplona Atlético taldeko June Kintana disko jaurtitzaila bakakoarra Junior Mailako 15. Munduko Atletismo txapelketan aritzeko hautatu dute. Txapelketa Estatu Batuetako Oregon estatuko Eugene herriko Hayward Field pistetan jokatu ari da, igandera bitartean. Guztira 167 herrialdeko 1.540 gazte hartuko dute parte, 22 diziplina ezberdinetan.

Atleta bakaikoarra disko jaur-

tiketari ariko da. Kintana Espainiako junior mailako disko jaurtitzaila txapelduna da eta juniorren munduko rankinean 4.a da, 55,66 metroko marka baitu. Helburua finalerako sailkatzea eta munduko 8 onenen artean sailkatzea da.

Kintanak 19 urte ditu eta kirol errendimendu altuko Leongo CEAR (Centro Especial Alto Rendimiento Deportivo) zentroan entrenatzen du. Aldi berean albaitaritzatik ikasketak egiten ari da Leonen. Disko jaurtiketan etorkizun handia du.

Kayak

Igo kayakera!

Asteartean, 17:00etan, Olaztiko igerilekuan

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak udarako prestatutako eskaintzaren barruan, asteartean, garilaren 29an, kayak jardunaldia izanen da, 17:00etan, Olaztiko igerilekuan. Ekimena antolatzeko Olaztiko Udalaren laguntza izan du Mank-ek. 5 urtetik gorako neska-mutiko guztiek parte hartu ahalko dute jardunaldian.

Dohainik baina izena eman behar da

Ekimena dohainik da, baina izena eman behar da Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com) edo herri bakoitzeko monitoreei esanez. Horretarako ostirala, garilak 25, da azken eguna. Izena ematen duten partaideen arabera autobusa izanen da.



Orain bi urte Lakuntzako igerilekuek hartu zuten kayak jardunaldia.

Pilota

Txapelak jokoan Olaztin

Bihar jokatuko dira 43. San Migel Pilota Txapelketako finalak, 10:00etan. Igandean, kategoria txikikoen finalen txanda izango da, 9:30ean

Olaztiko Sutegi klubak eta San Migel elkarteak antolatutako 43. San Migel Pilota Txapelketa finalera iritsi da. Makina bat pilotarik parte hartu du aipatu txapelketan, eta Santa Ana festekin batera finalak jokatu dira.

Bihar, larunbatean, txapelketako final handiak egonen dira jokoan Olaztiko pilotalekuan, 10:00etan. Aldiz, igandean, 9:30etik aurrera, kategoria txikikoen finalak hartuko ditu pilotalekuak. Guztira 12 final jokatu dira, eta, hortaz, pilotazaleek gozatu ederra hartzeko aukera dute Olaztin.

San Migel Pilota Txapelketa

Larunbatean, 10:00etan

3. maila: Victor-Luis/Xapa-Maio
2. maila: Mikel-Xabi / Besga-Borrega

1. maila: Joseba-Unai / Barban-Aritz

22 urtez azpikoak: Iturriaga-Erostarbe / Ansa-Legarreta

Altsasu Europako Kopako txapelduna



Asteburuan Europako Kluben Arteko Pilota Kopa jokatu zen Vall D'Hebronan, 36 metroko frontoian. Europako 16 klubek parte hartu zuten txapelketan. Binakako eskuzko modalitatean Altsasu taldeko Ioritz Arrieta eta Arkaitz Peñas finalerako sailkatu zen, finalerdian Biarritz taldeko Bernardi eta Agerreri 10-2 eta 10-1 irabazi eta gero. Igandean jokatu final handian, Lau Herri-Arcangues taldeko Mendy eta Luro irabaztetik zetozen Uharte Iruñeko Eneko Ioldi eta Joseba Sarasa izan zituzten aurkari. Altsasuarak jaun eta jabe izan ziren, bi jokotan irabazi baitzituzten uhartearrak, 3-10 eta 4-10. Hortaz, Sociedad Deportiva Alsasua-Altsasu klubeko Arrieta eta Peñas Europako Kluben Arteko Kopako txapeldunak ditugu. Zorionak!

Sutegi-San Migel Txapelketa. Kategoria txikiak

Igandean, 9:30ean

Txikiak: Nicolas-Canceco (Errioxa) / Astarloa-Bernalte (Elorrio)

Umeak: Arrillaga-Zubizarreta (Lazkao) / Iskander-Faben (Atxondo)

Kimuak: Igoa-Etxague (Zizur) / Jorge-Peso (Errioxa)

Haurrak 2: Auritz-Elola (Bidania-

Goiatz) / Muguruza-Eneko (Laudio)
Haurrak 1: Olaetxea-Apeztebrea (Arbizu) / Oteiza-Murua (Arrasate)

Kadeteak 2: Iriondo-Aiesta (Orozko) / Sagasta-Azkarragaurizar (Elorrio)

Kadeteak 1: Garmendia-Murua (Lazkao) / Zubeldia-Zubeldia (Amezketak)

Gazteak: Egiburu-Garmendia (Lazkao) / Egiguren-Eskudero (Amezketak)

Areto futbola

Zazpi talde Irurtzungo 12 orduetan

Bihar, larunbatean, 8:00etatik aurrera jokatu da txapelketa

Futsalsakanak, hainbat babesle eta laguntzailerekin batera, 12 orduko Irurtzungo 2014 areto futbol txapelketa antolatu du biharko, garilaren 26rako. Txapelketa Irurtzungo Atakondoa kiroldegian jokatu da eta 7 taldek eman dute izena. Taldeak multzotan banatu dira, ligaxka jokatu da eta talde onenak sailkatu dira finalerdietarako.

Final handia 20:00etan

Talde bakoitzak gehienez 12 kide izango ditu eta partidak 40 minutukoak izango dira. Goizeko 8:00etan hasiko da txapelketa, Irulekun eta Gunea tabernaren kontrako lehiarekin. 9:00etan Caf 

www.futsalsakana.es

Irurtzungo 12 orduetako informazio guztia, partidak, ordutegiak eta beste. Bestalde, **II. Futsal Sakana Txapelketako** informazio guztia topa daiteke bertan, izena ematea barne.



K+DA eta Ingenieria Iradi lehiatuko dira eta 10:00etan Arbizu La Faif. Segidan talde guztiak guztien kontra jokatu dute. Irurtzungo 13:00etan sartuko da lehian, Arbizu eta La Faifen arteko galtzailearen kontra. Finalerdia 17:30ean abiatuko dira, eta, final handia 20:00etan jokatu da.

Sariak ederrak izango dira: txapeldunak 300 euro eta trofeoa, txapeldunordeak 150 euro eta trofeoa, hirugarrenak eta laugarrenak 75 euro eta txapelketako jokalarionenak 75 euro.

Mendi lasterketak



Fiti eta Aritz Munarriz, proba bukatuta, hankak freskatzen. UTZITAKOA

Munarriz 6.a eta Jimenez 11.a Collaradan

17 KM-KO PROBAN 2016 METROKO DESNIBELA GAINDITU BEHAR IZAN ZUTEN

Igandean Pirinioetako Villanuan antolatutako 2KV Collarada mendi lasterketa jokatu zen. 17 km-ko proba zen, baina distantzia labur horretan gainditu beharreko maldak, ikusgarriak, 2016 metroko desnibel positiboa baitzuen probak. Finean, Villanuatik abiatuta Collaradakogailurreraino (2050m) igotzea eta jaistea zen kontua.

Salgado 3. beteranoa

838 korrikalari zeuden izena emanda eta David Prades izan zen garaila (2:12:50). Sakana Bizirik taldeko Aritz Munarriz eta Fidel Jimenez Fiti etxarriarrek lan bikaina egin zuten. Munarriz 6.a izan zen helmugan (2:27:20) eta Fiti 11.a

(2:38:50). Goierriko 2 Handietan erretiratu izan behararen zapore txarra kendu zuela onartu du Munarrizek. Bestalde, Jose Antonio Salgado beterano altsasuarrak sasoi betean jarraitzen duela erakutsi zuen. Beteranoen artean 3.a izan zen (3:05:20). Zorionak guztioi.

Katarain 8.a Lasturren

Larunbatean Lasturko Mendi Lasterketa jokatu zen, 12 km eta 630 metro desnibel positiboko proba. Imanol Larrañaga azkoitiarra (1:04:02) eta Nerea Amilibia aiatarra (1:18:48) izan ziren txapeldunak. Beñat Katarain gaztelakuntzarrek lan ona egin zuten eta zortzigarrena iritsi zen helmugara (1:08:58).

Mendia

Giro ederra Bargagainen

300 PERTSONA BILDU ZIREN ALTSASUKO MENDIZALEAK TALDEAK ANTOLATUTAKO LIV. BARGAGAINGO IGOERAN

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak LIV. Bargagaingo Igoera antolatu zuen igandean. Aldi berean, ekitaldia XLIV. mendi finalista izan zen.

Goizean goiz hartu zuten mendizaleek Bargagainerako bidea, Altsasuko Mendigoizaleak taldekoek suzuria jaurti bezain pronto. "Hasieran zerua estalia zegoen eta jendeari kosta egin zitzaion mugitzea. Bainagero oso egun polita geratu zen" adierazi digu Altsasuko Mendigoizaleak taldeko Fernando Bengoetxeak. Bargagainen 300 pertsona inguru bildu ziren, eta giro ederrean ospatu zuten eguna.

053, zenbaki saritua

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak urdaiazpiko bat zozketa zuen Bargagaingo festan. Zenbakiarekin nahasmena izan da eta atzera ere zozketa egin dute mendi klubekoek. Zenbaki saritua 053 da. Zenbakiaren jabea jar dadila harremanetan Altsasuko Mendigoizaleak klubekoekin.



Bildutakoek zilarrezko katiluetan dastatu ahal izan zuten ardoa.

Sebastian Hualde "Txan"-ek meza eman zuen eta ondoren finalista ospatu zuten Altsasuko Mendigoizaleak taldekoek. Denboraldian egindako mendi igoeren errepaso egin eta oroigarriak jaso zituzten. Jakina, auzate ederra egon zen bildutako guztiendako. Udalak 45 litro ardo jarri zituen festarako, zilarrezko katiluetan dastatu ahal izan zena. Horretaz

aparte, gazta, txorizoa, ogia eta beste ez ziren falta izan. Altsasuko erromeria eta festa guztietan bezala, zortzikoak ez zuten huts egin ekitaldian. Cruz Mari Martinezen txistu doinuei jarraiki ateraziren dantzatzera. Bitartean, bildutako gehienek argazkia ateratu zuten Bargagaingo gurutzean (1.156m). Ondoren, bazter guztiak garbi garbi utzita Altsasura jaitzi ziren.

Mendia-abentura

Aho zapore ona nagusi Altsasu Xtreme lehiaketan

13 pertsonako lau talde aritu ziren nor baino nor, altxorra lortzeko helburuarekin. Baikolarko bareak nagusitu ziren

Joan zen larunbatean jokatu zen Altsasuko Gazte Asanbladako antolatutako Altsasu Xtreme abentura lehiaketa. Parte hartzaileek proba ugari gainditu behar izan zituzten, pistak lortuaz altxorra lortzeko. Jarduerak ez ziren soilik fisikoak izan; buruari eragiteko hainbat proba ere egin zituzten. Eguraldi atseginaz lagunduta, parte hartzaileak ahalegin betean ibili ziren egun osoan zehar, eta irabazi ala ez, denek bukatu zuten aho zapore gozoarekin.

Lehiaketari goizeko 11:00etan eman zitzaion hasiera, parte hartzaileak Foruen Enparantzan bildu eta taldeka antolatu ostean. 13 pertsonako lau talde aritu ziren nor baino nor: Uberkazuloko loinak, Txunkaiko kunkunak, Sozarretako saguzarrak eta Baikolarko bareak. Behin hasi eta eguerdira bitartean hainbat proba egin zituzten, tetris erraldoia, fardo igoera edota oztopo zirkuitua, kasu. Ondoren, geocatching proba, heliozko puxikak lehertzeko proba eta kara-

oke proba izan zituzten. Azkenean ariketa herrian zehar egin beharreko ibilbide bat zen, zinema zaharrean ezkutatuta zegoen altxorrera eramango ziena.

Baikolarko bareak, Xtremeazkarrenak

Helmugara iristen lehenak Baikolarko bareak izan ziren, egun osoan zehar beste taldeekiko alde ederrekin ibili ostean. Hortaz, talde honetako kideak izan ziren altxorpreziatuaren edukia ezagutzen lehenak: gaztetxeko bandera handi bat, edari hotzez eta fruitu lehorrez beteriko kutxa handi bat eta premium edo luxuzko afari bat.

Eguna amaitzeko, afaria, bideoen emanaldia eta debatea

Egindako esfortzuen ondoren, parte hartzaileek Altsasuko Gazte txean afaltzeko aukera izan zuten. Afariaren ostean, egunean zehar grabatutako bideoen emanaldia egin zen, parte hartzaileek castingean esandakoak eta bestelakoak erakusteko. Debateta ere ez zen falta izan, non talde bakoitzak egunean zehar gertatutako inguruko iritzia eman zuten.



Goian irabazleak. Behean, probak. TESTUA ETA ARGAZKIAK: EÑAUT AGIRREBENGOA.



Pilota

Zubieta, Ezkurdia eta Zabaleta Andre Maria Zuria jaietan

Agorriaren 5ean hasiko da Gasteizko Andre Maria Zuria jaietako torneo. Binakakoan 4 bikotek hartuko dute parte: Irujo-Merino II.a, Xala-Zubieta, Berasaluz II.a-Albisu eta Olaizola II.a-Beroiz. Joseba Ezkurdiak eta Jose Javier Zabaletak ardoaren desafioan parte hartuko dute. Lau t'erdian Joseba Ezkurdiak Saralegi izanen du aurkari. Binakakoan Titin III.a rekin osatuko du bikoa Zabaletak, Bengoetxea eta Aretxabaletaren kontra.

Orga kronoigoera

Monkini eta Anartz azkarrenak Irurtzungo orga kronoigoeran

Pikuxar elkarrekin antolatuta, igandean XVII. Irurtzungo orga kronoigoera jokatu zen. 11 bikote lehiatu ziren. Elizazpiko kaletik abiatuta, kulturetxeraino ailegatzea zen erronka, atzera ere, behar baino jaisteko. Tartean proba ezberdinak gainditu behar zituzten. Bikote azkarrena Iñaki Morillas "Monkiki" eta Anartz Olan izan zen (1:55). Bi urdaiazpiko eta 12 ardo botila jaso zituzten. Bigarrenak Jota Rekalde eta Iñaki Azkona izan ziren -urdaiazpiko erdia bakoitzarendako eta 6 ardo botila- eta hirugarrenak Ramon Casteig eta Jonathan Vilches -bi gazta eta 4 ardo botila-.

Triatloia

Triatleta handien pare

Ehun triatleta inguruk parte hartu zuten Urdaingo igerilekuetan jokatuako Sakanako XIII. Haur Triatloian

Mank-ek Sakanako XIII. Haur Triatloia antolatu zuen larunbatean Urdaingo igerilekuetan, Sakanako Triatloi Taldea, Urdaingo Aitziber elkarte, Urdaingo Udala eta Nafarroako Triatloi Federazioaren laguntzarekin. Aurrebenjaminetatik hasita, juniorretara bitartean, 100 triatleta inguruk hartu zuten parte Urdaingo igerilekuetako ingurune ederretan –Urriztin, Saraben eta besten–, antolatutako proban. Triatloi proba Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria zen.

Mank-eko teknikari Amaia Gerrikagoitiak azaldu digunez, giro ederra izan zen, partaidetza handia eta eguraldi epela. “Urtero bezala, Nafarroa osoko partaideak bildu ziren, eta gustura eta lilurata geratu ziren Urdaingo paraje ederrarekin” adierazi du Gerrikagoitiak. Halaber, Sakanako Triatloi Taldeko eskolako partaidetza handia izan zela nabarmendu du teknikariak, eta egun Udako Triatloi Campusean parte hartzen ari



Proba Sarabeko paraje ederretaraino luzatu zen. EÑAUT AGIRREBENGOA

diren 20 neska-mutikoetatik askok larunbateko Sakanako XIII. Haur Triatloian aritu zirela.

Emaizak

Aurrebenjaminetan 12 neska-mutiko aritu ziren, benjaminetan 30, kimuetan 18, haurren mailan 20, kadeteetan 13 eta juniorretan bakarra.

Aurrebenjaminetan emakumezkoetan Aiuri Elizalde gailendu zen eta gizonezkoetan Julen Esparza. Sakana Triatloi taldeko Gorka Diaz bigarrena izan zen eta Alain Razkin hirugarrena. Benjaminetan Eva Zapateriak irabazi zuen emakumezkoetan, eta David Etzeberriak, aldiz, gizonezkoetan. Sakana taldeko Xabier Borrega hirugarrena izan zen. Kimuen mailan, Idoia Eraso eta Gerardo Pascual gailendu ziren, eta haurren mailan Carmen Riaño eta Mikel Armañanzas. Bukatzeko, kadeteetan Laura Aparicio eta Paco Sanz izan ziren azkarrenak, eta junior mailan Ruben Ilundain.

Bukaeran, parte-hartzaile guztiek ogitartekoa eta zukuarekin berreskuratu zituzten indarrak.

Waterpoloia



Lau talde egin zituzten eta guztiek guztien kontra jokatu zuten.

Waterpoloan gustura

35 neska-mutikok hartu zuten parte Mank-ek Dantzalekun antolatutako waterpolo jardunaldian

Mank-eko Kirol Zerbitzuak eta Altsasuko Udalak waterpolo jardunaldia antolatu zuten asteartean Dantzaleku igerilekuetan.

Kimuetatik hasita jubencil mailara arte, 35 neska-mutikok hartu zuten parte waterpolo jardunaldian; Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranz, Urdiain, Altsasu, Olazti eta Sakanako Triatloi Eskolako

Gasteizko haurrak ziren. Mank-eko teknikari Amaia Gerrikagoitiak azaldu digunez, 4 taldetan banatuta, guztiek guztien kontra jokatu zuten. “Waterpoloan jokatzearralsalde ederra pasa genuen Altsasuko Dantzalekun. Bukatzeko, merezitako ogitarteko goxoa eta zukua hartuta, autobusez bakoitza bere herrira bueltatu zen” azaldu digu teknikariak. Hurrengo aste-rako, asteartean, kayak jardunaldia antolatu dute Olaztin.

Futbola

Futbol campuseko bigarren txanda lanean

13 ETA 15 URTE BITARTEKO 19 GAZTETXO DABILTZA FUTBOLEAN MURGILTZEN

Mank-eko kirol zerbitzuak hainbat entitateen laguntzarekin antolatutako futbol campusak aurrera jarraitzen du. Aurreko astean 10 eta 12 urte bitarteko 15 gaztetxok parte hartu zuten campusean eta aste honetan 13 eta 15 urte bitarteko 19 gaztetxoek txanda da. Asteazken egunero 9:30etik 14:00etara murgildu dira futbolekoan, Peio Goikoetxea eta Jokin Lobo monitoreen esanetara.

Uharteko Arakilgo futbol zelaian burutzen ari da aurten campusa. Monitoreek futboleko teknika eta praktika uzartu dituzte ikasleekin, baina, horretaz aparte, txangoren bat egiteko aukera izan dute eta Uharteko igerilekuetan freskatu dira.

Bigarren txandako partaideak



Eder Zuñiga, Axular Jaka, Selma Larabas, Ekai Urkijo, Jonan Zelaia, Gorka Ansa, Julen Goikoetxea, Hasier Galarza, Eneko Vera, Tasio Merchan, Mikel Arellano, Unai Alaba, Mikel Apaolaza, Aitor Flores, Haritz Goikoetxea, Urko Maxim Izagirre, Manex Goikoetxea, Ander Agirre eta Xabier Claver.



Nonerabili

ASENSIO

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuan txupittoa doan.

SARABE TXOKOA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan etxeko produktua doan.

VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

EDERNE ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

15 €ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. 30 €ko gastuarekin bibote eta bekainak doan. Eta ileapaindegian makilaje ukitua doan.

XAGU

ALTSASU

% 5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketarekin gero.

LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegia eta irakurketarako liburuetan.

GOIKO LOREDENDA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan %10eko deskontua (Baratza eta garaiko loretan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

MARI JOSE

ILEAPAINDEGIA

ARBIZU

Garbitu, moztu eta apaindu 25 €.

FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN

10 €ko gastuarekin 2 boleto zozketarako.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



Zinema **proiektore berria** Altsasurako

EKOIZTETXEEK FILMAK FORMATU DIGITALEAN BANATZEN DITUZTE PELIKULAK ETA ALDAKETA EGIN EZEAN OSO TITULU GUTXI IKUSTEKO AUKERA LEGOKE

Altsasuko Udalak asteartean egindako bilkuran aurrekontualdaketa egin zuen zinema proiektore digitala erosteko. Iortia kultur gunean jarriko den proiektore berria erosteko 60.000 euro bideratu ditu udalak. Gauzak ongi lastailera, zinema sasoia hasten denerako martxan izanen da proiektore berria.

Inbertsioaz galdetuta, Betisa Anda kultur teknikariak azaldu digu zinema ekoizte-etxeek eta banatzaileek gero eta film gutxiagoren kopiak egiten dituztela 35 mm-kopelakulan. "Gero eta gutxiago ateratzen da horrela, gehiena digitalean egiten dute haiendako merkeago delako". 35mm-ko kopia gutxiago egotearen ondorio zuzena izan da aurten Iortia zinema sasoia maiatzean despeditu beharrean apirilean agurtzea.



Kultur guneko areto handian jarriko dute proiektore digitala, han ematen baitituzte gaurkotazko filmak eta hurrei zuzendutakoak. Areto txikian oraindik ere 35 mm-ko proiektoreak segituko du. Andak azaldu digunez,

banatzaile txikiek oraindik ere 35 mm-ko pelikulak banatzen dituztelako oraindik, "baina haiek ere aldatuko dute".

Hirietako eta filmoteketako zinemek orain dela bi urte aldatu zituzten proiektoreak eta digita-

Merkeago

Lastailarekin batera, zinema sasoia hasten denean, zinema zaleek deskontuak eskuratzeko aukera izanen dute Iortian. 3, 5 eta 8 filmetarako abonuak salgai izanen dira. Gainera, haurrendako filmak eta beste ikuskizunak bateratzen dituen txartelak ere izanen dira.

lak jarri. Herrietako aretoak dira aldatzen azkenak eta batean baino gehiagotan ez dute aldatu ere egingen. Andak esan digunez, proiektore berriak beste aukera batzuk ematen ditu, esaterako, opera edo bestelako musika jaialdiak ematea. Baita 3D proiektzioak egitea. Baina hori aurrerago etorriko dela gaineratu du.

Soul doinuak baino gehiago

Gaur, ostirala, 20:00etan Altsasuko gaztetxean



AEBko soul klasikoa, New Orleansgo ikutuak eta hip hopa. Osagai nagusi horiekin, eta beste batzuekin, sortu dute guerrilla soul izendatu dutena Bruce Jamesek (pianoa eta ahotsa) eta Bella Blackek (ahotsa). Haien proposamena Dj Phil Rossen efektuekin eta soinuekin osatzen dute, kalitatezko musika eskaintza originala osatuz. Altsasuko Gazte Asanbladatik kontzerturako gonbitea luzatu dute, "jada hain gazteak ez diren pertsonak ez dute gaztetxera ez etortzeko aitzakiarik, kontzertu honek benetan merezi du eta".

Texasarrak sortzez, Holandatik heldu da hirukoa. James eskarmentu handiko soul-mana da. Rossek, berriz, musika ekipoko platerak jazz tresna gisa erabiltzen ditu. Bien artean osatzen dutesoul oinarritzko sekzio erritmikoa, James berak eta Blackek euren istorioak konta ditzaten. Abeslariak, kantaria baino olerkaria, kontralto ahots sakona du eta R&B, soula, jazz eta rock estiloen nahasketa bateratzailea du.

Anda eta Poyo Bilboko Rekalde aretoan

Pasa den ostiraletik lastailaren 12ra, Bilboko Rekalde Aretoan Aniztasunaren memoria. I/Bespedientea erakusketa ikusgai izanen da. Alberto Ipiña eta Begoña Bidaurrezaga senar-emazteek azken 60 urteetan euskal sortzaileen lanak eskuratu dituzte. 600 pieza baino gehiagoko bilduma horretatik Xabier Sáenz de Gorbea komisarioak egilerik garrantzitsuenek egindako marrazkiak, pinturak, eskulturak, argazkiak, bideoak eta dokumentuak aukeratu ditu, 89 guztira, eta hainbat txoko dituen erakusketa aretoan jarri ditu.

Horien artean bisortzaile sakan-darren lanak daude. Jose Ramon Anda bakaikuarraren *Sin título 1986* lana dago ikusgai, erakusketa-Geometria berriak atalean. 60 urte atzerako begirada horren



azken zatian, Arteproiektuala izenekoan, Txuspo Poyoren *Tiempos hostiles* bideo-lana ikusteko aukera dago.

Poyoren Altzairuzko teila Izaron da



Urteetako ohitura segituz, asteartean Bermeoko alkate Idurre Bideguren teila bat bota zuen itsasora herriko mugak noraino iristen diren zehazteko. Ekintzak berak baino gehiago teila izan du aurten protagonismoa. Txuspo Poyo altsasuarra egindako altzairuzko teila izan baita alkateak bota duena.

Hura egiteko Bermeoko, Mundakako eta Elantxobeko ontzien atalak erabili zituen Poyok. Bi kilo

pasatxoko pieza da. Teilan irakur zitekeen hura botatzean esaten dena: *honaino iristen dira Bermeoko itxuginak*. Altsasuarra adierazi duenez, "itsasontziak herrian zati garrantzitsu bat dira, herriaren egunerokoak hitz egiten dute".

Poyok esku artean duen Izaro proiektuaren adar bat besterik ez da teilarena. Haren bidez hiru herrien historia eta memoria argitan jarri nahi du, Poyoren esanetan Izaro ez baita irla hutsa.



OLAZTIKO UDALA

Ongi pasa festetan!

Garzia Ximenez enparantza 1 p.k. 31809
Olazti (NAFARROA)
Tel.: 948 56 24 46 Faxa: 948 56 25 29
olazti@olazti.com · www.olazti.com
f Olazti kultura



Akordeoi eta pandero kontzertua Josefina Arregi klinikari

Asteartean, 11:30ean, Enrike Zelaiak eta Amaia San Miguelek emanen dute emanaldia

Josefina Arregi klinikaren lagunen elkarteak antolatutako astearteko akordeoi eta pandero kontzertua. Emanaldiaren bidez sakandarrek klinika ezagutzeko bide bat izatea nahi dute musikariek. Enrike Zelaiak kontzertuarekin bere babesa azaldu nahi izan dio klinikako lagunen elkarteari eta sakandarrak harekin elkarlanean aritu eta bazkide egitera animatu ditu. Amaia San Miguelek, berriz, emanaldiarekin bere esker ona adierazi nahi dio klinikari.

Akordeoi kontzertuarekin despedituko da ikastaroa



Bihar, larunbatean, 17:00etan Altsasuko Otadiko Kristo Deuna aterpean Alexey Artemyev irakaslearekin trebatzen egon diren ikasleek joko dute

Hauspo Alai elkarteak uda-ikastaroarekin akordeoi akademia bihurtu du Altsasuko Otadiko Kristo Deuna aterpean. Alexey Artemyev irakasle errusiarrarekin trebatzen aritu dira Galiziako, Huescako, Murtziako eta Nafarroako sei ikasleak, aurretik ere ezagutzen zutenak. Ikasleek duten programa edo heldu den ikasturtean prestatu behar duten programa lantzen aritu dira

Artemyev-ekin. Egunero bakarka aritzen dira irakaslearekin eta gero hark agindutakoa lantzen dute.

Bihar emanaldia eskainiko dute, musika barrokoak eta garai-kideak osatzen duten programarekin. Besteak beste Arne Nordheim, J.S. Bach, Shostakovic, Sofia Gubaidulina edo Scarlatti egileen lanak entzuteko aukera izanen da larunbatean.

Aurrekoan

Pasa den astean 8 eta 14 urte bitarteko bederatzi haurrek eta gazte-txok parte hartu zuten ikastaro-

an. Leioako (Bizkaia) bi parte-hartzaile ez beste, gainontzeko guztiak nafarrak. Haien artean Ilazki Iturralde Escobar irurtzundarra. Guztiak musika eskoletako akordeoi ikasleak dira.

Egunero Artemyevekin bakar-kako klaseak zituzten, 45 bat minutukoak. Gainera, goiz eta arratsalde, ordu erdi bana aritzen ziren ikasten, irakasleari etxeko lanak eginak eramateko. Elkarrekin pieza bat prestatu zuten (Maya erlearena) eta hura entsetzeko egunero ordu bat aritzen ziren. Aisialdi jarduerekin eta igerilekura egindako irteerekin osatu zuten

Hauspo Alai

Inma Canovas eta Maria Arizaletak osatzen dute elkarteak. Canovasek kontserbatorioko azken kurtsoa eginen du. Arizaleta, berriz, hiru musika eskolatan akordeoi irakaslea da eta ikasketak egiten segitzen du. Biei asko gustatzen zaie akordeoi eta hortik elkarte sortzera pasaziren. Akordeoiaren inguruan jarduerak antolatzea du helburu elkarteak.

Aurreneko jarduerabiaste haur egindako akordeoi uda-ikastaroak izan dira. "Uda partean ikasleek haien lanarekin segitzeko aukerarik ez dago eta gabezia hori estaltzeko antolatutako ikastaroak", azaldu digu Arizalatak. Gaineratu du "beste toki batzuetako akordeoiariak ezagutzeko bidea" ere izan nahi dutela ikastaroak. Canovasek garrantzia eman dio ikasleak beste irakasle batzuekin lan egiteko duten aukerari. Azaldu duenez, biak ere aurretik uda-ikastaroetan Artemyev ikasle izandakoak dira.

Aterpeko egonaldia eta ikastaroak ederrak izan direnez, Hauspo Alai elkarteak heldu den urtean ere uda-ikastaroak antolatzeko asmoa azaldu digute.

egonaldia. Hala ere, joan aurretik, larunbat arratsaldean, kontzertua eman zuten.



Ibarra objektibotik

Arakilgo Udalak antolatutako argazki lehiaketara 16 parte-hartzaile aurkeztu dira. Haietatik 33 jaiak eta tradizioak sailean aurkeztu dira, eta ondarea eta paisaia sailean beste 12. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak larunbatean Arakilgo Egunean ikusgai izanen dira Urritzolako elkartearen, eguerditik aurrera. Ondoren, erakusketa udaletxeko batzar gelara lekualdatuko da eta han agorrilaren 8ra arte izanen da ikusgai.

Sare sozialen bidez herri bozketaren eginen da eta hala 100 euroko sari bat banatuko du Arakilgo Udalak. Irabazlearen izena agorrilaren 8an jakinaraziko da. Gainontzekoak, sail bakoitzeko argazki onenaren egileari emanen diote, 250 euro. Aipatutako datan epai-mahaiak sail bakoitzetik aukeratutako 10 argazki finalistak zein diren jakinaraziko ditu. Haiek 11tik 13ra ikusgai izanen da eta agorrilaren 14an jakinaraziko du Arakilgo Udalak bi argazki irabazleak zein diren.



Festetarako kartela aukeratu dezakete altsasuarrek



Astelehenetik hasi eta hilaren 29ra bitartean 16 urte-tik gorako altsasuarrek festetako kartela zein izanen den aukeratu dezakete. Horretarako euren bozak udalaren web orriaren bidez (www.alsasua.net) edo Iortia kultur gunean eman ditzakete. Epai-mahaiak aurre aukeraketa egin du eta altsasuarrek bi lanen artean aukeratu beharko dute. Kartelaukeratuaren egileak 600 euroko saria jasoko du. Haurren mailako irabazleak marrazketa materiala eta 60 euro eskuratuko ditu.

Altsasuko Udaleko Kultura sailetik jakinarazi digutenez, haurren mailan 112 lan aurkeztu dira lehiaketara. Helduenean, berriz, 7. Lan horiek guztiak irailaren 1etik 12ra Iortia kultur gunean ikusgai izanen

dira, astegunetan, 10:00etatik 14:00etara.

Unamuno
pentsuak

Ondarria industrialdea z/g
ALTSASU
948 562 829
Faxa: 948 563 002
unamuno@plensosunamuno.com

Bixi-bixi, festak bizi!

Bakaikuko festak 2014

OSTIALAK 27. IGANDEA

- 12:00 Bakaikuko marraia.
- 13:00 Bakaikuko marraia joko bakoitzeko saria.
- 14:00 Auzolana: jaiak eta elkarrekin.
- 15:00 Kultureko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 16:00 Kultureko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 17:00 Kultureko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 18:00 Kultureko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 19:00 Kultureko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 20:00 Kultureko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 21:00 Kultureko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 22:00 Kultureko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 23:00 Kultureko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.

JUUEVES, 24 de JULIO

- 12:00 Chupatzen da txistu de festa osatzen por aurkitzen delo txistu eta txistuak eta txistuak jokoak.
- 13:00 Partida de pelota en el Frontón Iturralde.
- 14:00 Alerte! Litarrijo! Piztasunak eta Lope de Soria. Mito.
- 15:00 Bakaikuko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 16:00 Bakaikuko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 17:00 Bakaikuko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 18:00 Bakaikuko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 19:00 Bakaikuko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 20:00 Bakaikuko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 21:00 Bakaikuko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 22:00 Bakaikuko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.
- 23:00 Bakaikuko Lehiaketaren prentsa-erakundearen.

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
948 564 275 arg@guaixe.net

mugikorrerako aplikazioak, triptikoak, diptikoak, kartelak...

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 68%	euria: 10%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 8%	euria: 10%
Min: 15 Max: 21	Min: 14 Max: 24	Min: 14 Max: 25	Min: 13 Max: 23	Min: 13 Max: 24	Min: 13 Max: 30	Min: 15 Max: 29

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	36	10.5	0.3
Etxarri A.	34.3	10.5	4.8
Altsasu	33	12.5	3.8
Aralar	26.4	8.6	6.7
Urbasa	31	9	2.5

: ilargiaren aldia>>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
26	4	10	17

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Garileko bazkide zozketa

GARILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artzako kanpinuean %10eko deskontu balea eta Armix sukaldetan liburuak.
2. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artzako kanpinuean %10eko deskontu balea eta Lunatikoak liburuak.
3. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artzako kanpinuean %10eko deskontu balea eta Lunatikoak liburuak.
4. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artzako kanpinuean %10eko deskontu balea eta Lunatikoak liburuak.

>> 11 galdera

Longi Andueza

La Banda del Jefe Bigun taldeko gitarra jole eta ahotsetako bat

Testua: Maialen Huarte Arano



Elkarrizketa osoa: www.guaixe.net.

1. **Gitarra jolea zara txikitatik, zergatik hasi zinen jotzen?**
10 urte nituela erregeek ekarritako gitarra izan zen nire eskuetan izan dudana lehena. Fraileen ikasketxe batean nengoen eta bertako moja batek erakutsi zizkidan lehen akordeak jotzen. Ez nintzen ni izan gitarra jotzea erabaki zuena, gitarrak hautatu ninduen ni.
2. **Mojak erakutsitakoarekin abiatu zenuen zure ibilbidea?**
Moja izan zen lehen pausoak ematen lagundu zidana. Gero Irunberri-joan nintzen 16 urterekin ikasketak bukatuz. Lagunetako batek askozekien gitarra jotzeaz eta hark erakutsi zidan, "moja estilotik" urrundu eta estilo gehiagotara berrantzen. Sukarrarekin izan nintzen batean lagunak horrenbeste jotzen zuen kantua ateratzea lortu nuen: *La casa del sol naciente*.
3. **Urte batzuk beranduago ekin zenion zenbait taldetan jotzeari?**
1984. urtean esan daiteke profesionalago hasi nintzela gitarra jotzen. Addar taldea osatu genuen eta 3 urtez herriz herri plazak musikaz betetzen ibili ginen, Sakanan, Nafarroan, Gipuzkoan...
4. **Addar taldearekin ibilbidea bukatu zen, baina oraindik eszenatokietan aritzen zarete?**
Ezkontzetan jo ohi dugu orain gehiago Txaston talde altsasuarrekin. Iturri-Murri tabernan 5 urtez izan ginen ezkontzetako musika jartzen, orain gehien bat Izar-Ondon aritzen gara.
5. **La Banda del Jefe Bigunekin rock and rolla da nagusi.**
Rock and rolla da nagusi eta Country...

yarekin ere ausartu gara. Oso talde berezia sortu dugula esan nuke. Lau kide gara: ni neu, gitarrarekin eta ahotsarekin aritzen naiz taldean, Katak ere gitarra jotzen du, Ibai baxu jolea da eta kantatu ere egiten du eta azkenik Ricardo da bateria jotzailea. Entseatzan disfrutatzen dugu guk, guk geuretako jotzen. Hiru lokaletan aritzen gara eta hori da gure erronka, egiten dugunaz gozatzea nahiz eta eszenatoki gainetan ez izan.

6. **Countryarekin nola egin duzue harremana?**
Taldekideak Texasera joateko aukera izan zuten duela urte bete. Nik ezin izan nuen joan, baina joan zirenak txundituta itzuli ziren Country eskaintzen dituen aurretik. Country estiloa ongi ateratzeak zailtasun handiak eman bazizkigun ere, behin lortuta gozagarria da.

7. **Boladaka doa La banda del jefe Bigunen errepertorioa?**
Gutziz boladaka bai. Rock and rolla da nagusi. Horren barruan talde mitikoen abestiak jotzen ditugu, guztiz gure estilora ekarrita. Askotan abestiei moldaketak egiten dizkiegu, gure modura. Creedence, Deep Purple, The Rolling Stones... tartekatzen ditugu.

8. **AC-DC taldearen abestiak dira nagusi orain zuenean.**
Pasa den urtean hasi ginen talde horrekin erotzen. Izugarriak dira euren abestiak eta batekin hasi

ginen arren, dagoeneko 13 dira jotzen ditugunak. AC-DC taldearen monografikoa da, baina gu ez gara inoren tributoa egiten ari, gu, rock and rolla protagonista duen berbera gara.

9. **Gaur Bakaikun ariko zarete.**
Urte batzuk badira Bakaikun jotzen dugula. Berotasun handiz hartzen gaituzte eta berezia izaten da giroa. Beste toki askotara ezin izaten gara joan, asteburuetan taldekide zenbaitek lan egiten dutelako. Abuztuaren 1ean Lizarran izanen gara eta gogoan daukagu Olaztira joatea, aspalditik dabiltzalako eskaka.

10. **Zer eskainiko duzue Bakaikun?**
5 orduko kontzertua izanen da. Ordu eta erdiz izanen gara arratsaldean eta countryari emanen diogu protagonismoa: The Gambler, Los Secretos... Gauean, rock and rolla nabarmenduko da. AC-DC taldearen 13 abesti joko ditugu eta beste-lakoak ere bai: Ramones, Gary Moore, The Rolling Stones, Varon Rojo...

11. **Zer da zuretzako gitarra eta oro har rock and rolla?**
Pasioa dira, nire bizitzaren parte handia. Eguneroko errealitateetik aldentzen laguntzen didana. Gitarrak jotzen arina izan, gainerako arazoak ahazten zaizkit. Momentu oso pozgarriak eman dizkit gitarrak. Plazerra da jotzea. Oholtza gainean ari garela ere, bizi dugun sentazioa diruz ordaindu ezin dena da. Taldekideen artean sortzen den konplizitatea oso berezia izaten da.

UZTAILAK 25-26-27

Sakatxartel asteburua

Asteburu honetan erabili Beleixeguaixe txartela eta sari hauen zozketan parte hartuko duzu!

SARIAK

1. saria: 2 pertsonendako 2 zaldi ibilaldi Errontainen eskutik eta 2 lagunentzako bazkaria Otzaurteko Bentan

2. saria: Erein argitaletzeko liburu lote bat + Beleixeguaixe txartel bat